

IRAILA - URRIA

ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIAK



2016 **GIPUZKOA**

Migrazioak eta kultur ondarea

Gure lurraldean gertatutako migrazioei buruzko kultur ekintza programa zabal eta anitza, guztiei zuzendua.

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA

gipuzkoakultura.eus



2016ko ondarearen europako jardunaldiak

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Europar Batasunarekin lankidetzan Europako Kontseiluak sustatutako Ondarearen Europako Jardunaldiak ekintzaren edizio hau antolatzen du. Erakunde ugari-
ren partaidetzarekin, programa honek Ondare Kulturalari buruzko sentsibilizazioan sakondu nahi du.

Jardunaldietan, aparteko kasuetan eta egun jakin batzuetan ateak irekita daude eta jendeari bere ondarea eta historiarekin zerikusia duten bitarteko eta baliabide batzuetara iritsi eta eza-
gutzeko aukera ematen zaio.

Aurkibidea

Denis Itxaso, Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol	
Departamentuko foru diputatuaren agurra	6
Gomendioak	8
Andoain	10
Astigarraga	11
Beasain	13
Bergara.....	16
Donostia	17
Eibar.....	24
Errenteria.....	25
Ezkio-Itsaso	30
Hernani.....	31

Hondarribia	32
Idiazabal	33
Irun	34
Legazpi	35
Oiartzun	36
Oñati	38
Ordizia	41
Ormaiztegi	43
Pasaia	44
Tolosa	45
Usurbil	47
Zerain	48



Argazkia: Aranzadi.

2016ko ondarearen europako jardunaldiak “Etxetik kanpo” migrazioak eta kultura ondarea.

Kultura ondarearen bitartez ezagutzen ditugu mendeetan zehar bizipenak, gune geografikoak eta kulturak partekatu dituzten gizarteen izana, historia eta identitateak. Gure monumentu, museo eta eraikin historikoak ikusteak aukera ematen digu denboran atzera egiteko eta antzekotasunak eta desberdintasunak antzemateko, baina, nolanahi ere, gure egungo errealitatea hobeto ezagutzen laguntzen digu, gure gizartea plurala baita eta, halaber, partekatutako identitateen ondorio garbia. Ezagutza hori oso alderdi garrantzitsua da kultura ezberdinen balioa ulertzeko, partaide sentitzeko eta balioak partekatzeko. Aniztasunean antzematen ditugun alderdi komunek elkartu eta batu egiten gaituzte, eta alderdi horiek aitortzea oinarritzko ariketa baita elkarbizitza eraikitzeko edozein mota-tako bereizketa edo diskriminazio ba-

ztertzeko. Hausnarketa hori, gainera, Europa batu baten aldeko ideia zailtzan dagoen une batean egiten da, eta ez dugu ahaztu behar ideia horrek bultzatu zuela gure proiektu komuna eta aniztasunaren inguruko elkartasuna.

Ondarearen Europako Jardunaldiak Europako Kontseiluak bultzatutako ekimena da eta Europako Batzordearen babesa du. Helburua da herritarren eta kultura ondarearen lotura ezartzea, bai ate irekiko jardunaldiak antolatuta, bai ondare hori hobeto ezagutzeko, ulertzeko eta interpretatzeko oinarriak eta gidak eskainita. Aurrez ikusi gabeko arrakasta lortu dute Europa mailan, gaur egun Europako Hitzarmen Kulturalea osatzen duten 50 sinatzailek parte hartzen baitute ekintza honetan, eta Kultura Departamentuak

Gipuzkoara zabaldu nahi izan du ekimena, lurraldeko ondarearen hedapena eta ospakizuna sustatzeko. Gipuzkoako Foru Aldundiak lehen aldiz proposatu du gure lurraldea Europako proiektu handi horren barruan egotea, eta ondo zehaztutako helburuak ditu horretarako:



Argazkia: Aranzadi.

- Europako hiritarrak sentsibilizatzea, Europako kulturak dituen aberastasuna eta aniztasuna hobeto ezagutzeko.
- Kulturen arteko elkarriketa sustatzea.
- European arrazismoaren eta xenofobiaren aurka eta tolerantziaren alde egitea, nazio-mugak gaindituta, eta identitate bera partekatzearen sentimendu europarra indartzea.
- Gizarte zibila nahiz ekonomia, gizarte, politika eta administrazio alorre-tako eragile guztiak sentsibilizatzea, mehatxu berriei aurre eginez ondare-a babestu ahal izateko.
- Europari eskatzea gizarte, politika eta ekonomiari lotutako erronka be-

rirei aurre egiteko, bere elkarbizitza ereduaren oinarrian dauden premi-setatik abiatuta.

Europako proiektu horren barruan egon nahi dugu, kultura hedatzeko eta aniztasuna integratzeko dituen baliok onartzen ditugulako, eta hori da neurri handi batean **“Migrazioak eta Kultura Ondarea”** 2016ko Ondarearen Europako Jardunaldiek adierazten dutena. Ekimen horretan parte hartu ahal izateko Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza izan dugu, eta erakunde horren Jardunaldietako **Etetik Kanpo** lema hartu dugu, proiektu bateratu bat garatzeko gure borondatearen adibide modura. Ikuspegi honetatik abiatuta, eta ekimen honetan parte hartzeko asmoa



Argazkia: Kutxateka.

adierazi duten kultura eragile, museo, liburutegi, artxibategi, udal eta Gipuzkoako beste entitate guztien laguntzarekin, espero dugu herritarrek kultura ondarearekiko hurbiltasuna sentitzea eta, horregatik, ondare hori ezagutzeko esperientzia ezagutzera gonbidatzen ditugu.

Donostia, 2016ko uztaila

Denis Itxaso

Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuko foru diputatua

Bisita egin aurretik

Planifikatu

Planifikatu ondo ibilbidea. Esku artean daukazun programak kultur proposamen asko eta desberdinak eskaintzen dizkizu, guztiak Gipuzkoako lurraldean. Programa arretaz irakurtzea gomendatzen dizugu, planifikazio ona egin eta ahalik eta jarduera gehienetan parte hartu ahal izateko. Gogoratu bisita asko egiteko hitzordua eskatu behar dela aurretik.

Baieztatu

Baieztatu, aurrez, programan agertzen diren datuak. Katalogo hau jarduerak hasi baino dezente lehenago argitaratzen da; horregatik, datu batzuk, adibidez, ordutegiak, elkartzeko guneak eta abar, aldatu daitezke. Aukeratutako jarduerarekin batera agertzen den telefonoarekin harremanetan jarri behar zara, xehetasun guztiak baieztatzeko.

Bisita eguna

Prestatu

Jantzi arropa eta oinetako egokiak. Jarduera askotan, landa-bide eta -bidezidorretan zehar ibili behar da; beraz, gomendagarria da oinetako eta arropa erosoak erabiltzea. Aurrekoaz gain, euria eginez gero, eraman euritakoa. Gomendio gehiago nahi badituzu, deitu jarduera bakoitzaren telefonora.

Ordurako egon

Izan adeitsua taldearekin. Garaiz heldu; aztertu aurretik abiapuntura iristeko ibilbidea. Bisitan zehar, ez distraitu beste parte-hartzaileak eta adi egon gidaren jarraibideei.

Jakinarazi zure iritziak. Bisita amaitzen denean, jakinarazi gidari horri buruz dituzun iritziak. Gogobetetze-inkestak dauden lekuetan, mesedez, hartu minutu batzuk betetzeko. Zure iritziak hobetzen laguntzen digu.



ANDOAIN



BI ANDOAINDAR, ELIZA BAT: JUJUYTIK GOIKOPLAZARA GARAGORRIN BARRENA.

Bisita gidatua.

Aita Larramendi (1690-1766) - Agustin Leitza (1694-1763). Loiolan bizi zen bat, Argentinako Jujuy besteak. Biek maite, ordea, Andoain. Baten kudeaketa lanek eta bestea dirutzak ahalbiderratu zuten San Martin elizaren eraikuntza. Bisita honekin, beraien ibilbideak, egindako elkarlana eta Andoaingo eliza ezagutzea dugu helburu. Garagorri baserriatik abiatuko gara, bertan Larramendiren obra azalduz. Helmuga Goikoplaza.

Iritsitakoan, eliza kanpotik nahiz barrutik bisitatuko dugu. Bertan, Argentinara joandako Nemesio Olariagari esker Parisen egindako Merklin organoa ere ikusiko dugu.

EGUNA ETA ORDUA:

Irailak 25, 10:00.
Euskaraz eta gaztelaniaz.

ELKARGUNEA:

9:45 autobusez Goikoplazatik.
10:00 Garagorri baserrian.
Oinez, bakoitza bere kabuz,
joan nahi duenarentzat.

ANTOLATZAILEA:

Andoaingo Udala. Manuel Larramendi Kultur
Bazkuneko bazkideak. Jubilatua Elkarretek
bolondresak.

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK:

943 303 540
Udaleko kultura saila / kultura1@andoain.eus
Oinetako erosa eramatea gomendatzen da,
aldaparen bat badago ere ibilbidea erraza da.



ASTIGARRAGA



SAGARDO IBAIAK, BIZITZA ITURRI. *Aldi baterako erakusketa.*



Aspaldidanik, ibaiak komunikaziorako giltzarriak izan dira eta harreman ekonomikoak eta sozialak eratzeko erabili izan dira. Iraganean, Urumea eta Oria "sagardo ibaiak" (Gipuzkoako bi ibai nagusiak), bizitza nahiz aberastasunaren iturri, aintzina "autobideak" eta puntako teknologia guneak izan ziren. Portu-instalazio eta

zerbitzuak izan zituzten eta asko izan ziren beren uren ertzetan gertatutako istorio harriarri eta bitxiak. "Sagardo ibaiak, bizitza iturri" erakusketak gure iraganeko kultur ondarea ezagutzeko azalpen panelak, maketak eta fresnak biltzen ditu.

EGUNA ETA ORDUA:

Irailaren
16tik 25era,
16:00-19:30

ELKARGUNEA:


Sagardoetxea,
Sagardoaren Museoa.

ANTOLATZAILEA:

Sagardoaren Lurraldea. Astigarragako Udala. Hernaniko Udala. Usurbilgo Udala. Donostiako Aquarium-a.

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK:

943 550 575 - info@sagardoarenlurraldea.com
www.sagardoarenlurraldea.com



ASTIGARRAGA

SAGARDO IBAIAK, BIZITZA ITURRI,
LOURDES ODRIOZOLAREKIN.

Bisita gidatua.



Aspaldidanik, ibaiak komunikaziorako giltzarriak izan dira eta harreman ekonomikoak eta sozialak eratzeko erabili izan dira. Iraganean, Urumea eta Oria "sagardo ibaiak" (Gipuzkoako bi ibai ngusiak), bizitza nahiz aberastasunaren iturri, aintzina "autobideak" eta puntako teknologia guneak izan ziren. Portu-instalazio eta zerbitzuak izan zituzten eta asko izan ziren

beren uren ertzetan gertatutako istorio harriarri eta bitxiak. "Sagardo ibaiak, bizitza iturri" erakusketak gure iraganeko kultur ondarea ezagutzeko azalpen panelak, maketak eta tresnak biltzen ditu. Sagardoetxeako Lourdes Odrizolak bisita gidatua eskainiko du erakusketaren nondik-norakoak azalduz.

EGUNA ETA ORDUA:

Irailak 16,
19:00.

ELKARGUNEA:


Sagardoetxea,
Sagardoaren Museoa.

ANTOLATZAILEA:

Sagardoaren Lurraldea. Astigarragako Udala. Hernaniko Udala. Usurbilgo Udala. Donostiako Aquarium-a.

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK:

943 550 575 - info@sagardoarenlurraldea.com
www.sagardoarenlurraldea.com



*Caf XIX. mendazaren amaieraren
Caf a finales del siglo XIX*

BEASAIN



MIGRAZIOAK SORTUTAKO ONDAREA BEASAINEN.

Mahai ingurua.

Herri industrialia dugu Beasain eta bertan jasandako migrazio prozesu handienak industriarekin zerikusia izan dute, arrastoak utziz herrian zehar. Hala ere, gaur egun bertaratzen den jende gehiena beste estatuetatik dator, eta lana ez dute bakarrik egiten industrian, beste hainbat arlotan dihardute ere. Gai hauekin hausnarketa saio

bat egingo da Igartzako Jauregiko patioan, mahai ezberdinetan migrazio prozesu bakoitzak utzitako ondarea gaitzat jarriz eztabaidatuko da mahainguru batean.

EGUNA ETA ORDUA:

Irailak 30,
18:30.

ELKARGUNEA:

Igartza Jauregia.

ANTOLATZAILEA:

Beasaingo Udala.
Igartza Monumentu Multzoa.

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK:

Telefonoz edo e-postaz erreserbatzea gomendatzen da.
943 887 798/605 771 881
informazioa@igartza.net



BEASAIN



EZAGUTU MIGRAZIO PROZESUEN ARRASTOAK BEASAINGO INDUSTRIAN. JOSETXO ZUFIAURRE ETNOGRAFOAREN ESKUTIK. *Bisita gidatua.*

Migrazio prozesu ezberdinak Beasaingo industrian utzi dituen arrastoak ezagutu ahal izateko Josetxo Zufiaurre etnografoaren eskutik egingo dugu bisita gidatu bat herrian zehar arrasto hauek identifikatu eta ezagutu ahal izateko. CAF enpresaren sorrera eta etorritako langileak, Olanar fabrikaren historia Antzuolatik etorritako langileekin, Igartzako burdinolara etorritako

langileak eta beste hainbat prozesuen sekretu eta bitxikeriak ezagutuko ditugu.

EGUNA ETA ORDUA:

Urriak 2,
10:00.

ELKARGUNEA:

Loinazko San Martin Plaza.
Udaletxea.

ANTOLATZAILEA:

Beasaingo Udala. Igartza Monumentu Multzoa.

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK:

Telefonoz edo e-postaz erreserbatzea beharrezkoa da.
943 087 798/605 771 881
informazioa@igartza.net



BEASAIN



IGARTZA MONUMENTU MULTZOA ETA MIGRAZIOAK. *Bisita gidatu antzetzua.*

Bisita gidatu antzetzua baten bitartez, migrazioek Igartzan izan duten garrantzia irudikatuko da. Migrazioarekin loturiko eragile ezberdinak egongo dira bertan, Igartzako bisita gidatu antzetzuetan erabiltzen ditugun pertsonaien bidez (errotaria, olagizona, ikazkina, etab.), lekuko industriak erakarritako migrazioaren garrantzia agerian jarriko da.

EGUNA ETA ORDUA:

Urriak 15,
17:00.

ELKARGUNEA:

Igartza Monumentu Multzoa.

ANTOLATZAILEA:

Beasaingo Udala.
Igartza Monumentu Multzoa.

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK:

943 087 798/605 771 881
informazioa@igartza.net



BERGARA



LABORATORIUM
BERGARA



Begarako
Udala

ARTE INPORTATUA JAUREGI ETXEKO ERLIEBEAN. JESÚS MUÑIZ PETRALANDAREN ESKUTIK. *Hitzaldia eta bisita gidatua.*

Begarako herriak arkitekturaren alorrean duen ondare bikainaren baitan, Jauregi etxea gailentzen da; etxea bera eta kanpotik duen dekorazioa berezi-berezia. Izan ere, zeharo ezhoikoa da, bai erabilitako material eta teknikarengatik, bai iturri gisa hartutako inspirazio geografikotik; osagai guzti horiek erbestetik etorritakoak baitira. Honen bereizitasuna eta Arte His-

torian duen garrantzia azaltzeko hitzaldia emango du Jesus Muñiz Petralandak.

EGUNA ETA ORDUA:

Irailak 24,
11:00.

ELKARGUNEA:

Begarako Udaletxea.
Areto Nagusia.

ANTOLATZAILEA:

Begarako Udala: Laboratorium Museoa.

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK:

Laboratorium Museoa. Ez da erreserbatu behar.
943 769 003 / 943 769 445
laboratorium@bergara.eus
Hitzaldiaren ondoren, bisita gidatua bertan.
Gaztekeraz.



DONOSTIA



ETXETIK KANPOTIK EUROPA PLAZARA. *Erakusketa.*

Gure inguruko kale-izendegian islatzen diren pertsonak oinarri hartuta, bi migrazio motei erreparatuko diegu: akademikoa bata, erbesteari lotua bestea. Lagun horietako askok harremana zuten haien artean eta euskal kulturari lotutako erakundeetan parte hartu zuten (RSBAP, Eusko Ikaskuntza...), Euskal Herrian unibertsitate-

rik ez zegoenean. UPV/EHUren Gipuzkoako Campusaren beharrezko aurrekariak izan ziren batzuk eta Campus horren erdigunean, Europa plazan, Bibliotekak beren ondare bibliografikoa jasotzen du.

EGUNA ETA ORDUA:

Urriaren 3tik 28ra.
Astelehenetik ostiralera,
9:00 - 20:30.

ELKARGUNEA:

UPV/EHU. Gipuzkoako
Campuseko Biblioteka. Carlos
Santamaría Zentroa.

ANTOLATZAILEA:

UPV/EHU. Gipuzkoako Campuseko Biblioteka.

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK:

UPV/EHU. Gipuzkoako Campuseko Biblioteka.
Ez da erreserbatu behar.
943 018 860 / gi-bib.ikaskuntza@ehu.eus
Liburu erakusketa eta informazio-panelak egongo dira ikusgai. Antolatuko diren jarduera paraleloen berri emango da: bisita gidatuak, erakusketaren alderdi bati buruzko mahai-ingurua, etab.



STM

DONOSTIA



“BIDRIOAREN JENDEA”.

Hitzaldia..

Bidriogileak gremioka banatzen diren talde berezia dira. Beraien abizen frantsesak, italiarrak, suitzarrak edo alemanak fabrikak egon ziren lekuetan errepikatzen dira. Emigranteak baino gehiago, munduko hiritarrek ziren.

Fabrika hauek XIX. mendeko lehen erdialdean agertu ziren. Ontziak behar ziren, eta portu guztietan herriko enpresariek bidrio-

gileak kontratatu zituzten. Ondarretan ere, Brunet anaiak “Miquelete” izeneko sagardoarentzat botilak egiten zituzten. 10 urte bete aurretik itxi zuten, “bertako langileak formatzea ezinezko zelako”, bidriogileek euren familakoei soilik irakasten baitzizkieten teknika hauek.

EGUNA ETA ORDUA:

Irailak 28

19:00.

Ordubeteko iraupena.

Gasteleraz.

ELKARGUNEA:

Koldo Mitxelena Kulturunea.

ANTOLATZAILEA:

GENVITRUM, las gentes del vidrio. www.genvitrum.com

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK:

Josu Aramberri

648 198516

jaramberri@i2basque.es



DONOSTIA



TOP OF... ARTZAIN ONA. *Bisita gidatua.*

Hiria ikuspuntu ezberdin batetik ezagutzeko aukera paregabea, Artzain Onaren katedraleko dorretik. Bertan, lurralde ezberdinen artean gertatutako arkitektura maileguak azpimarratuko dira. Batez ere, kultur aberastasun honetan migrazioek izan duten garrantzia donostiako gailurretik aztertuko dugu, gipuzkoar hiriburuko katedrala eredu bezela hartuz.

EGUNA ETA ORDUA:

Irailak 17,
9:00 - 13:00.

ELKARGUNEA:

Artzai ona Katedrala.
Sarrera.

ANTOLATZAILEA:

ATARI Kultura Arkitektonikoa.

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK:

www.atari.eus
615540050
javier@atari.eus



DONOSTIA

STM
San Telmo Museoa

HEMENDIK HARA HANDIK HONA 1. MIGRAZIO MUGIMENDUAK SAN TELMO MUSEOKO ERAKUSKETA IRAUNKORREAN.

Bisita gidatua.

Bisita gidatu honen bitartez, euskal jendartean migrazio mugimenduek izan duten garrantzia ikusiko dugu: erromatarren eragina Euskal Herrian, euskarak Ternuako toponimian utzi dituen arrastoak, Italiatik etorritako trikitixaren garrantzia gure kulturatan... Azken finean, migrazioak hainbat arraziengatik egiten dira: ekonomikoak,

sozialak, politikoak... eta gure historian zehar hainbat migrazio eman dira bai gurerara eta bai kanpora. Mugimendu guzti hauek ohitura eta kultura berriak sortu dituzte, eta horien ondorioz sortutako objektuak ikusteko aukera izango dugu.

EGUNA ETA ORDUA:

Urriak 6,
18:30 euskaraz.
Urriak 13,
18:30 gaztelaniaz.

ELKARGUNEA:

San Telmo Museoa.

ANTOLATZAILEA:

San Telmo Museoa.

Informazioa eta erreserbak:

stm_erreserbak@donostia.eus
943 481 561
Iraupena: ordubete.



DONOSTIA

STM
San Telmo Museoa

HEMENDIK HARA HANDIK HONA 2. URGULL MENDIA. INGELESEN HILERRIA. *Ibilaldi gidatua.*

Ingelesen hilerria Urgull mendiko txoko go-goangarrietako bat da. Baina zergatik du izen hori? Ingelesak egon ziren lurperatuta bertako hilobietan, baina nortzuk ziren ingeles horiek? Zertara etorri ziren Donostia? Galdera horiei erantzungo diegu Urgull mendian zehar egingo dugun ibilaldi honetan.

EGUNA ETA ORDUA:

Urriak 8,
12:00 euskaraz.
Urriak 15,
12:00 gaztelaniaz.

ELKARGUNEA:

San Telmo Museoa.

ANTOLATZAILEA:

San Telmo Museoa.

Informazioa eta erreserbak:

stm_erreserbak@donostia.eus
943 481 561
Iraupena: ordubete.



DONOSTIA



ONDARRETAKO HIRI LORATEGIA. HIRI MULTZO KOSMOPOLITA BATEN DIBERTSITATE ESTILISTIKOA.

Hirigintza esparru honetako etxebizitzaren historia, arkitektura zein sustatzaileen inguruan hitzegingo da bisita gidatu honetan. Honez gainera, multzoak duen garrantzia kulturala, ondare mota honen hauskortasuna eta hau babesteko gaur egun dauden zailtasunak azpimarratuko dira. Bisita hauetan 15 pertsonako taldeak

gingo dira, gehienez, eta, une oro, Ancorako bolondresak laguntzeko prest egongo dira.

EGUNA ETA ORDUA:

Urriak 8, 11:00.
 Urriak 15, 11:00.
 Urriak 22, 11:00.
 Urriak 29, 11:00.

ELKARGUNEA:

Maria Cristinaren estatua.
 Ondarretako Lorategiak.

ANTOLATZAILEA:

ÁNCORA.

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK:

ÁNCORA.
 688 621 074
agrupacioncivicaancora@gmail.com
 Taldeak, gehienez ere, 15 lagunekoak izango dira.



DONOSTIA



“EMAKUMEAK ETA ITSASOA” ERAKUSKETA. *Bisita gidatuak.*

Itsas singladuren historian ohiz agertzen diren protagonista bakarrak gizonaek izanik ere, emakumeen presentzia on-tzietan etengabe egon izan da. Colón, hirugarren bidaiari, 1498an, 30 emakume baino gehiagorekin iritsi zen eta berehala sortu zen migrazio fluxu femenino bat Ameriketarantz, hilabeteak irauten zuten bidaiak eta baldintza prekariotan.

“Emakumeak eta itsasoa” erakusketara bisita gidatua proposatzen da gai honi arreta berezia eskainiaz.

Urriak 15, larunbata, eta dohainik goizeko 12:30etan erdaraz eta 17:30etan euskaraz bisita.

EGUNA ETA ORDUA:

Urriak 15
12:30. Gazteleraz.
17:30. Euskaraz.

ELKARGUNEA:

Untzi Museoa.

ANTOLATZAILEA:

Untzi Museoa-Museo Naval.

Informazioa eta erreserbak:

943 430051
untzimuseoa@gipuzkoa.eus
Doan.



EIBAR



EIBARKO PASAIA KULTURAL BERRIAK.

Topaketa.

Armagintzaren Museoa eta eibartar berri zein zaharrak hiriko paisaia kulturalaren muina bihurtuko ditugu.

Eibarren, urtez-urte, sortu nahiz eraldatzen joan den paisaia kulturalari buruz hausnarketa egiteko gunea. Hiriko kultur elkarte, eragile eta erakundeetako arduradunei irekitako deialdia. Topaketa honetan, mu-

sean ikusgai dauden objektu desberdinak hartuko dira abiapuntutzat hiriak izandako transformazioa ikuspuntu desberdinetatik lantzeko.

EGUNA ETA ORDUA:

Urriak 20, 18:00.

EILKARGUNEA:

Armagintzaren Museoa.

ANTOLATZAILEA:

Armagintzaren Museoa. Eibarko Udala.


INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK:

museoa@eibar.eus

Erreserbak urriak 17 arte.

943 708 446

Erreserba egitea beharrezkoa da.



ERRETERIA



“SASKI NASKI”: DONOSTIATIK (1923-1932) ARGENTINARA
(1946-1958) KULTURA MIGRAZIO KASUA.

Bisita gidatua.

Saski Naski Donostian sortu eta euskal folklorea jakitera emateko xedea zuen ikuskizuna izan zen. Eusko Jaurlaritzak antolatu zuen Eresoinka enbajada artistikoarentzat eredu izan zen gerrate zibilean, bai eta Argentinan erbesteratutako euskaldunek bultzatutako Saski Naskirentzat. ERESBILek gordetzen dituen Argentinako

Saski Naski ikuskizunaren funtsak ikusteko bisita gidatua proposatzen du, Luis Mújica eszenografo eta zuzendari artistikoari eta Francisco Madina musikariari lotuak. DSS2016 Donostiako Kultura hiriburutzak sustatutako Eresoinka erakusketarekin kointzidituko du.

EGUNA ETA ORDUA:

Urriak 6,
11:00.

ELKARGUNEA:

ERESBIL-Musikaren Euskal
Artxiboa.

ANTOLATZAILEA:

ERESBIL-Musikaren Euskal Artxiboa.

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK:

ERESBIL-Musikaren Euskal Artxiboa.
943 000 868
bulegoa@eresbil.com



ERRETERIA



Errenteriako Udala

ERRETERIAKO BOST ATEEN BILA. *Pista-jokoa.*

5-12 urteko umeak dituzten familiei zuzendutako herriko gune historikoa ezagutzeko pista-jokoa. Joko horren bitartez, Erdi Aro eta Aro Modernoko Errenteria eta itsasoaren arteko harreman estua eta euskaldunok munduko itsasoetan zehar izan dugun papera eta garrantziaren berri emango da.

EGUNA ETA ORDUA:

Gaztelaniaz
Irailak 24, 10:30 - 11:30
Euskaraz
Irailak 25, 10:30 - 11:30

ELKARGUNEA:

Udaletxeko arkupeak.

ANTOLATZAILEA:

Errenteriako Udala.

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK:

943 449 610
archivo@errenteria.eus
Iraupena: ordu 1.



ERRETERIA



Errenterriko Udala

ERRETERIA ITSAS HIRIA: ERRETERIAKO ERDI AROKO ETA ARO BERRIKO HISTORIA.

Bisita gidatua.

Errenterriak iraileko 22tik 25era antolatzen duen Atlantikaldia Kultur topagune eta Musika jaialdiaren baitan, herriko gune historikoan zehar bisita gidatua eskainiko da. Bertan, ondare arkitektonikoa itsas-iraganarekin daukan lotura ezagutu ahal izango da, hala nola: urez inguratutako hiribildua Foru plaza edo Gamon zumardi-

ko padurak adibidez eta bost ate zeuzkan harresitutako gunea zela, itsas merkataritzak hirian izan zuten eragina (beste herri batzuekiko ondoriozko migrazio-erlazioekin)... Era berean, ondarearen balore arkitektoniko zein artistikoa azpimarratuko da.

EGUNA ETA ORDUA:

Euskaraz

Irailak 24, 12:00 -13:00.

Gaztelaniaz

Irailak 25, 12:00 -13:00.

ELKARGUNEA:

Errenterriko Udaletxea.

Arkupeak.

ANTOLATZAILEA:

Errenterriko Udala.

INFORMAZIOA ETA ERRESEBAK:

943 44 96 10

archivo@errenteria.eus

Iraupena: ordubete.



ERRETERIA



Errenteriako Udala

MANCHESTER TXIKIRA BIDAIA: ERRETERIA INDUSTRIALAREN HISTORIA. *Bisita gidatua.*

Bisita honetan herriarentzat industrializazioak suposatu zuen aldaketa ezagutzera emango da, XIX-XX mendetan jasandako eraldaketaz jabetuz. Halaber, planoan kokatu eta industriek hartzen zuten lekutara hurbilduz, erakutsiko dira Erreterian izan ziren industria nagusiak, garaiko lan baldintzak, industrializazioan emakumeek

izan zuten rola... Erreteria handiarazi zuten migrazio-prozesuak aztertuko dira eta garai hartan gizartearen sortu ziren aldaketak.

EGUNA ETA ORDUA:

Euskaraz

Urriak 1, 11:30 - 13:30.

Urriak 9, 11:30 - 13:30.

Gaztelaniaz

Urriak 2, 11:30 - 13:30.

Urriak 8, 11:30 - 13:30.

ELKARGUNEA:

Alamedako kioskoa.

ANTOLATZAILEA:

Errenteriako Udala.

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK:

943 44 96 10

archivo@errenteria.eus



ERRENERIA



DANTZAN IKASI. *Saio teoriko-praktikoak.*

Saio teorikoa:

Dantzan Ikasi, euskal dantzak europar testuinguruan ondare inmaterial gisa duen balioa.

bostehun urteetan jaso ditugun oinarrizko egitura koreografikoak, eta haiek gizar-tean izandako isla landuko ditugu.

Saio teoriko-praktikoa:

Hitzaldi dantzatua. Saioteoriko-praktiko baten bidez Gipuzkoan Europatik azken

EGUNA ETA ORDUA:

Urriak 4, 16:00.

ELKARGUNEA:

Donostia.

ANTOLATZAILEA:

Gipuzkoako Dantzagunea.

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK:

943021624

dantzagunea@gipuzkoa.eus

Data, ordutegia eta tokia gutxi gorabeherakoak dira.



EZKIO-ITSASO



NONDIK NATOR NI? NIRE FAMILIA EZAGUTZEN. *Tailerra.*

Igartubeiti Baserri Museotik baserrietan gelditzeko eskubiderik gabe gelditzen zirenen memoriak berreskuratu nahi ditugu, emigratzera behartuta ikusi zirenak gogora ekarriz. Tailer intergenerazional eta interkulturala antolatuko dugu, abiapuntua Domingo Irizarren kontakizuna izanik: soldadu egin eta "Indietara" bidali zuten

gizonarena. Familia genealogien bitartez inguruko istorio biziak bilduko ditugu.

EGUNA ETA ORDUA:

Urriak 29,
16:30.

ELKARGUNEA:

Igartubeiti Baserri Museoa.

ANTOLATZAILEA:

Igartubeiti Baserri Museoa.

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK:

943 722 978
igartubeiti@gipuzkoa.eus
Familia tailerra.



HERNANI



ALBOKARIEN HERNANIKO 23.

Topaketa.

Albokarien Hernaniko 23. Topaketan ostiraleko kontzertuan Allan Griffinek Infernura eralibidean lana aurkeztuko du. Bertan 333 doinu biltzen ditu, duela hogeita hamar urte Euskal Herrian finkatu zitzaigun Alan Griffinek sinatuak, berak sortuak zein herri-ondaretik hartu eta moldatuak. Etorri bikaineko musikari irlandarrak ikuspegi kosmopolitaz aberastu du alboka, zalearentzat

eta herri-musika aztergai duenarentzat erakargarritasun handiko emaitza lortuz. Larunbatean Euskal Herriko albokarien txanda kalebueletak, bazkari herrikoian eta kontzertuak eskainiz.

EGUNA ETA ORDUA:

Irailaren 30etik.
Urriaren 1era.

ELKARGUNEA:

Hernani.

ANTOLATZAILEA:

Hernaniko Soinua.

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK:

Joseba Zabaleta.
943 493 578
haritzezeiza@yahoo.es



HONDARRIBIA



HIRIGUNE HISTORIKOA ETA BIZTALEEN JATORRI ANIZTASUNA XVI. MENDETIK AURRERA.

Bisita gidatua.

“Bisita gidatu berezia egingo dugu Hondarribiko hiri harresituan barrena eta jauregi eta etxe ezberdinak aztertuz, bertan bizi izan ziren hainbat familiren atzerritar jatorriaz arituko gara.

Hondarribia leku estratejiko izan da historian zehar, bereziki bere muga izaeragatik. Merkatal portu garrantzitsua ere izan zen. Guzti honek hainbat jatorritako jendea

erakarri izan du historian zehar. Ustekabebat baino gehiago izango dugu, jada XVI. mendetik aurrera dagoen jatorri horien aniztasunaz jabetzen garenean: gaskoiak, ingelesak, italiarrak, frantziarrak...”

EGUNA ETA ORDUA:

Irailak 24,
10:30 Euskaraz.
12:00 Gazteleraz.

ELKARGUNEA:

ARMA PLAZA kultur eta turismo informazio gunea (Arma Plaza, 9).

ANTOLATZAILEA:

ARMA PLAZA Fundazioa.

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK:

943 644 623
armaplaza@armaplaza.eus
Nahitaezkoa da alde zuretik erreserba egitea.



IDIAZABAL



IDIAZABALGO INDIANO ETXEEN HISTORIA EZAGUTU. *Bisita gidatua.*

XIX eta XX. mendeetan Idiazabaldik Amerikara joan zen jende ugari eta bertan arrakasta ekonomikoa lortu zutenek, herriera itzultzean horren erakusle izatea nahi zuten 10 jauregi eraiki zituzten. Horrez gain, Indiano hauek, herriari zenbait dohaintza ere egin zizkieten. Aldi berean, Argentinan Idiazabal izeneko herri bat egotearen

arrazoiak ezagutuko ditugu. Hau guztia, aditu batek lagunduta ezagutzeko aukera izango dugu.

EGUNA ETA ORDUA:

Urriak 15,
11:00.

ELKARGUNEA:

Idiazabalgo Udaletxe
aurrean.

ANTOLATZAILEA:

Idiazabalgo Udala.

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK:

Idiazabal Kultura.
943 187 099

kultura@idiazabal.eus

Bisita publiko guztiarentzat da aproposa. Oinez egingo da. Ordu 1' erdi inguruko iraupena izango du.



IRUN

FUNDACIÓN
ARKEOLAN  OIASSO
MUSEOA

OIASSO, MUGA ETA KULTUR TOPAGUNEA.

Bisita gidatua.

Irunen aurkitu diren erromatar garaiko aztarna arkeologikoetan zehar ibilaldi gidatua egingo da. Aztarnategien berri izateaz gain, Oiasso garatu zeneko espazio geografikoa zein izan zen erakutsiko da. Azpimarragarriak dira portua identifikatzea ahalbidetu zuten aurkikuntzak, eta hauek duela 2000 urte baina gehia-

go kulturen batura eta mugen inguruan asko dute kontatzeko.

EGUNA ETA ORDUA:

Irailak 17,
12:00 Euskaraz.
Irailak 24,
12:00 Gaztelaniaz.

ELKARGUNEA:

Oiasso Erromatar Museoa.
Harrera.

ANTOLATZAILEA:

Oiasso Erromatar Museoa. Arkeolan Fundazioa.

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK:

943639353 - actividades.oiasso@irun.org
Prezioa: 2€.
Izena ematea beharrezkoa da.
Iraupena: 1'30h.



LEGAZPI



LANGILEEN IBILBIDEA. *Bisita gidatua.*

Legazpiko Langileen Ibilbidean herri baten historia kontatzen da, beste herri askotan bezala emigrante berrien etorrerarekin aldaketak jaso zituen: hasieran Araba edo Nafarroatik iritsi ziren, geroago Burgos, Extremadura eta bestelako probintzietatik. Guztiek ogibide eta beraien familientzako etorkizun hobe baten bila heldu ziren, eta

elkarrekin bizitzeak, gaur egun ezagutzen dugun Euskal Herria posible egin zuten. Bisitan historia honen protagonisten ekarpenak gogoan izango ditugu.

EGUNA ETA ORDUA:

Urriak 2,
11:00.

ELKARGUNEA:

Legazpiko enparantza.

ANTOLATZAILEA:

LENBUR Fundazioa.

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK:

Mirandaolako Turismo Bulegoa. Burdin Harana.
943 730 428 - mirandaola@lenbur.com
INahiezkoa da alde zuretik erreserbatzea
(ostirala baino lehen). Iraupena: ordubete.



OIARTZUN



UDAZKENEKO MUSIKA HERRIKOIA. *Kontzertua.*

Soinuenean antolatzen dugun Herri Musika Kontzertuen zikloan beti euskal musika herrikoia eta kanpoko beste herri musika ereduak entzuteko aukera izaten da. Bertako eta kanpoko herri musika ezagutu eta balorea emateko helburua dute emanaldi hauek.

Kontzertuan honetan talde hauek ariko dira: Euskal Herritik "Berpizkundeko Euskal Musika" proiektuarekin Jon Elizalde eta Pirenaeus Renaissance Consort eta Kataluniatik Carles Belda akordeoi jolea akordeoi diatonikoaren errepertorio herrikoiarekin.

EGUNA ETA ORDUA:

Urriak 22,
18:30.

ELKARGUNEA:

Soinuenea-Herri Musikaren
Txokoa.

ANTOLATZAILEA:

Soinuenea Fundazioa.

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK:

Soinuenea Fundazioa
943 493 578
artxiboa@soinuenea.eus
www.soinuenea.eus



OIARTZUN



OIARTZUNGO SAN ESTEBAN ELIZAKO BI ALTXOR: CAVALLÉ COLL ORGANOA ETA EZKILAK.

Bisita gidatuak.

Soinuenea Fundazioak, Oiartzungo Ezkil-jole Taldearekin eta Oiartzungo San Esteban Elizako Cavallé-Coll Organoaren Lagun Elkartearekin batera gure herriko elizarekiko sensibilizazio kanpaina bat jarri nahi du martxan. Hasteko, jardunaldi hauetako gaia kontutan izanik gaur egun oraindik erabilera handia duten bi altxorri eman nahi diegu garrantzia:

Elizako Cavallé-Coll organoa eta ezkilak. Egun osoan zehar eliza erekita egongo da, bertaratzen denak aukera paregabea izango du organoa txistu eta danbolinarekin batera entzuteko eta baita ezkila joaldiak entzuteko ere.

EGUNA ETA ORDUA:

Urriak 8.

ELKARGUNEA:

Oiartzungo San Esteban eliza.

ANTOLATZAILEA:

Soinuenea Fundazioa.
Cavallé Coll organoaren lagunak.
Ezkil-jole taldea.

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK:

Soinuenea Fundazioa.
943 493 578
artxiboa@soinuenea.eus



OÑATI

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputazioan Baratze
de Gipuzkoa



OÑATITIK AMERIKETARA ETA HANDIK HONAKO ITZULERA. *Bisita gidatua.*

XIX.mendearen Oñatitik Ameriketara joandako herritarren bizipenak, testigantzak, istorioak eta beste (formatu desberdinetan) jasoko dituen bisita gidatua, Euskal Herriko Sancti Spiritus Unibertsitatean dagoen Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoekin elkarlanean. Zenbait agiriren berri ematearekin batera, herriko erdiguneko Indianoen etxeen inguruko kontakizunak

zabalduko ditugu. Gauza jakina da denok izan ditugula Ameriketara joan beharrean aurkitu ziren ezagunak.

EGUNA ETA ORDUA:

Urriak 23,
11:00.

ELKARGUNEA:

Oñatiko Turismo Bulegoa.

ANTOLATZAILEA:

Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoako Protokolen Artxibo Historikoa Oñatiko Turismo Bulegoarekin lankidetzan.

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK:

Oñatiko Turismo Bulegoan.
943 783 453 - turismo@onati.eus



OÑATI

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputazioa Foru
de Gipuzkoa



GUZTIOK DITUGU FAMILIARTEKOAK XIX. MENDEKO GIPUZKOA ETA AMERIKA ARTEKO MIGRATZAILEEN ARTEAN. *Bisita gidatua eta bisita birtuala.*

Gipuzkoa, historian zehar, migratzaile herria izan da, eta XIX. mendean migrazioak asko ugaritu ziren. Foru artxiboek -Gipuzkoako Artxibo Orokorra eta Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoak- Gipuzkoako bizitzari buruzko dokumentazio garrantzitsua dute gordeta, eta jarduera hauetan parte hartuko dute, dokumentu desberdinak erakutsiz. Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoak

honakoak antolatu ditu:

- Artxiboa Amerikatik begiratuta. Bisita birtuala Gipuzkoako migratzaileen ondorengo amerikarrei zuzendua.
- Oñatiko Turismoarekin lankidetzan, ate irekiko jardunaldia. 'Oñati eta Amerika: migratzaileak eta indianoak' izeneko ibilbidea egingo da, dokumentuen eta arkitekturaren bidez migrazioen eraginak azalduz.

EGUNA(K) ETA ORDUA (K):

Urriaren 23a:
11:00.

ELKARGUNEA:

Turismo Bulegoa.

ANTOLATZAILEA:

Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoako Protokolen Artxibo Historikoa Oñatiko Turismo Bulegoarekin lankidetzan.

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK

Oñatiko Turismo Bulegoa
943 783 453 - turismo@onati.eus



OÑATI



HISTORIAURREKO MIGRATZAILEAK. *Bisita gidatua.*

“Giza eboluzioarekin garatu zaigu kultura, eta migrazioekin giza eboluzioa. Egungo kultur ondarearen erroak historiaurrean aurkitzen ditugu eta bere aztarnak kobazuloetan. Arrikruz-Oñatiko kobetan azken glaziazio garaiko bizidunen aztarnak aurkitzen ditugu eta, bisita berezi honi esker, aztarna hauek helarazten diguten ondarea ezagutzeko aukera izango dugu.

Ordubete inguru iraungo duen bisita honetan historiaurreko paisaia deskribatuko da, aztarnen gordailu izan den kobaren edertasuna miresten den bitartean.”

EGUNA ETA ORDUA:

Urriak 15,
10:00.

ELKARGUNEA:

Arrikruz-Oñatiko kobak.

ANTOLATZAILEA:

Arrikruz-Oñatiko kobak.

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK:

Arrikruz-Oñatiko kobetan.
943 08 20 00 / 943 78 34 53
arrikruz@onati.eus
Prezioa: 3€



ORDIZIA



DOMINGO DE ZABALA, ABENTURAZALE BATEN BIZITZA PATXI GARMENDIA MENDIGARREN ESKUTIK.

Hitzaldia.

Domingo de Zabala, Ordiziako pertsonaiari buruzko hitzaldia. Ondoren Ordiziako Elizan kokatuta dagoen Zabala familaren kaperaren bisita gidatua. Domingo Zabalak Lepantoko kanpainan parte hartu zuen, Luis de Requesens-en segizioan administrazio militarren enplegatua gisa (kontulari), eta bere jaunaren konfiantza pertsonalari esker, Granada galera agindu zuen, borrokan leku neuralgikoan kokatuta, ohi ez bezalako

heroitasuna zabalduz eta hiru ontzi turkiar harrapatuz. Ordiziako Eliz Nagusian Zaballaren kaperara dago kokatuta. Toki garrantzitsuak Domingo de Zavalaren bizitzan.

1. Villafranca (gaur Ordizia) 2. Barcelona 3. Messina (Sicilia) 4. Lepanto 5. Milán 6. Bruselas y Amberes (Herbereak) 7. Mula (Murtzia) 8. Madrid 9. Sevilla 10. Villafrancara itzulera (Ordizia)

EGUNA ETA ORDUA:

Urriak 22,
11:30.

ELKARGUNEA:

D'elikatuz Zentroa.

ANTOLATZAILEA:

D'elikatuz Zentroa.

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK:

delikatuz@ordizia.eus
943 882 290
Doako jarduera.



ORDIZIA



ANDRÉS DE URDANETA ETA ITZULERAKO BIDAIA. HISTORIA ALDATU ZUEN BIDAIA.

Bisita gidatua.

Bisita gidatu berezia egingo dugu Andres Urdanetaren eskultura eta Delikatuz Zentroan dagoen Urdanetari buruzko informazioaz baliatuz, Andres Urdanetaren bizitza eta, batez ere, berak egindako Itzulerako bidaia hobeto ezagutzeko. Bisita honetan bere jaiotzari eta haurtzarori, Moluketarako bidaiari, Penintsularako itzulerari, Mexikoko egonaldiari, bere bizitza erijioso

bezela itzulerako bidaiari eta Urdanetaren heriotzari buruz hitz egingo dugu. Bidai garrantzitsu honen aitzindariak ere ezagutuko ditugu: Magallanes, Elcano, García Jofre de Loaysa, Alvaro de Saavedra, Ruy Lopez de Villalobos,...

EGUNA ETA ORDUA:

Urriak 1,
11:30.

ELKARGUNEA:


D'elikatuz Zentroa.

ANTOLATZAILEA:

D'elikatuz Zentroa.

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK:

delikatuz@ordizia.eus
943 882 290
Doako jarduera.



ORMAIZTEGI



TRENAK EKARRITAKOA: SOINU TXIKIA. *Erromeria.*

Ormaiztegik XIX. mendean inmigrazio gehien jasotzen hasi zen garaia trenaren etorrerakin lotu dezakegu. Ormaiztegi-ren kasuan, trenbidea eraikitzen etorri ziren frantsesak eta haiek ekarri zituzten italiarrak izan ziren gehienak. Uste da italiar hauek ekarri zutela soinu txikia gurera, erromeriak eraldatuz. Ormaiztegik, gainera, badu trenbidearen eta soinu txikia-

ren arteko lotura hau berezi egiten duen pertsonaia bat: Ormaiztegiko itsua. Erromeria baten bidez inmigratioak ekarritako ondarea baloreari jarri eta ohitura honen aldarrikapena egingo dugu gaian aditu diren profesionalen ezagutza historikoaz baliatuz.

EGUNA ETA ORDUA:

Urriak 15,
17:30.

ELKARGUNEA:

Ormaiztegiko Trenzubiaren
azpiko zelaia.

ANTOLATZAILEA:

Ormaiztegiko Udala - Zumalakarregi Museoa.

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK:

mzumalakarregi@gmail.com
943 88 99 00
Edaria antolakuntzaren esku.



PASAIA



GURDI BIDEA: 17 EGUNEZ, BURGOSTIK PASAIARA. *Ekintza ezberdinak gurdi bidearen 17 egunetan zehar.*

Albaola Itsas Kultur Faktoriak eta Quintanar de la Sierrako "Real Cabaña de Carreteros"ek irailaren 1ean mendizerrako behiez eta idiz osatutako hiru gurdirekin osatutako gurdi bidea hasiko dute. Burgostik Pasaiara abiatuko da eta 17 egunetan zehar Burgos, Araba, Nafarroa eta Gipuzkoako lurraldeetatik igaroko da. Gurdietan, Pasaian Albaolak eraikitzen ari

den 16. mendeko San Juan baleontziaren erreplikarako artisaui egindako bikea eta alkitrana ekarriko da.

EGUNA ETA ORDUA:

Irailaren
1etik 17ra.

ANTOLATZAILEA:

Albaola Itsas Kultur Faktoria - Real Cabaña de Carreteros

ILKARGUNEA:

Igaroko ditugun hiri edo herri ezberdinak: Burgos, Araba, Nafarroa eta Gipuzkoa.

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK:

marketing@albaola.com
www.gurdibidea.com
943 39 24 26



TOLOSA



EROEN ONTZIA ERAKUSKETA.

Bisita gidatua.

Eroen Ontzia, arte garaikide eta txotxongiloen artean kokatuko genituzkeen instalazioen bitartez, errefuxiatuen krisi ezberdinez edota behartutako migrazioez, hau da, errealitate garaikideko gaiez hitz egiten duen erakusketa da. Erakusketa honek gainera, fenomeno hau ez dela batere berria erakuskten digu, bertan ikus daitezkeen eta aldizko erakusketaren izenburua

daraman instalazio batek "Eroen Ontzia" kontaktzen duen moduan, Erdi Aroan "gauza ezberdinak egiten zituztenak" edota "ezberdintzat" hartzen zen edonor, eta talde horretan sar genitzake artista txotxongilolariak, ontzi batean sartu eta itsasoz beste leku batetara, hau da, erbestera bidaltzen zituzten.

EGUNA ETA ORDUA:

Irailak 18, 12:00.
Irailak 25, 12:00.
Urriak 2, 12:00.
Urriak 9, 12:00.
Urriak 16, 12:00.

ELKARGUNEA:

TOPIC, Tolosa International
Puppet Center.

ANTOLATZAILEA:

CIT Tolosa.

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK:

943 650414
cit@cittolosa.com
Aldez aurretik izena ematea beharrezkoa da.
15 lagun gehienez.



TOLOSA



AUKERA BERRIEN BILA.

XIX. MENDEKO MIGRAZIOAK GIPUZKOAN. *Hitzaldia.*

Gipuzkoa, historian zehar, migratzaile herria izan da, eta XIX. mendean migrazioak asko ugaritu ziren. Foru artxiboek -Gipuzkoako Artxibo Orokorra eta Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoa- Gipuzkoako bizitzari buruzko dokumentazio garrantzitsua dute gordeta, eta jarduera hauetan parte hartuko dute, dokumentu desberdinak erakutsiz.

Gipuzkoako Artxibo Orokorrean, Mikel Alberdi, historiagile eta Zumalakarregi Museoko dokumentazio arduradunak azalduko digu aukera berriak bilatzeko fenomeno horrek erabili zituen forma desberdinak, artxiboetan gordetako dokumentuetan oinarrituz.

EGUNA(k) eta ORDUA (K):

Irailaren 17a: 12:00.

ELKARGUNEA:

Gipuzkoako Artxibo Orokorra
San Frantzisko pasealekua, 2.

ANTOLATZAILEA:

Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoako Artxibo Orokorra.

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK:

943 415 262
AGG-GAO@gipuzkoa.eus



USURBIL



Legebiltzaria

HARRIA HITZ. *Bisita gidatua.*

Gipuzkoako artista garaikideek nazioarteko ospe eta izena lortu zuten: Txillida, Oteiza, Mendiburu, Basterretxea... Deialdiak aipatzen duen "Gipuzkoatik Kanpora" kontzeptua sakon landu zuten: mundu-mailan zabaltzen ziren ideiei esker, migranteak ziren ideiei esker, eta arte-sorkuntzaren bidez gipuzkoar eta euskotar izateko modu bat asmatu eta zabaldu zu-

ten. Usurbilen, Udarregi bertsolariaren omezez, Mendiburuk eginiko eskultura hizpide, Rikardo Arregik idatzitako artikulua bikain laburtzen du hori. Mendibururen eskultura, Usurbilgo plaza, Zumetaren murala eta Zumetaren estudio bisitatuko ditugu hala sorkuntza-ondarearen arteko harremana aztertuz nola kultura-kontzeptuen hedapena azalduz.

EGUNA ETA ORDUA:

Irailak 17,
16:30.

ANTOLATZAILEA:

Usurbilgo udala.

ELKARGUNEA:

Usurbilgo frontoia.

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK:

605 729 802
info@ereifen.com
Aldez aurretik izena ematea beharrezkoa da. 30 lagun gehienez.



ZERAIN



BURDINAREN MENDIA. INGELES ALEMANAK ZERAINEN. *Bisita gidatua.*

XI. mendetik ustiatu da burdina Aizpeako meategietan, eta horrek pascia berezia sortu du. Bisitariak paisaia berezi hori izango dute ikusgai eta baita handik pascatakoek eraikitako azpiegiturak ere, hala nola, Ingelesak eta Alemaniarrek eraikitako kiskaltze labeak, gordailuak edota kable aereoak.

Aizpitta etxean hasiko dugu bisita, bertako historia eta lan egiteko modua ezagutzeko. Jarraian, transformazio tailerra eta galeriak ikusiko ditugu. Migrazioa gaitzat hartuta, bisita gidatu berezi honetan, meategiek zeraindarren bizimoduan izandako eragina ere azalduko da.

EGUNA ETA ORDUA:

Urriak 8, 11:00 Euskaraz.

ELKARGUNEA:

Zeraingo Aizpitta
Adieraztegia.

ANTOLATZAILEA:

Zeraingo Paisaia Kulturala. Aldabe Zerbitzu turistikoak.

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK:

Bisitaldia egiteko aurrez erreserba egin behar da.
943 801 505
turismobulegoa@zerain.eus
Bisita doakoa izango da.

ANTOLATZAILEAK

Gipuzkoako Foru Aldundia.

Andoaingo Udala.
Astigarragako Udala.
Beasaingo Udala.
Bergarako Udala.
Eibarko Udala.
Errenteriako Udala.
Hernaniko Udala.
Idiazabalgo Udala.
Ormaiztegiako Udala.
Usurbilgo Udala.

Aldabe Zerbitzu turistikoak.
ÁNCORA.
Andoaingo Jubilatutako Elkarteetako
bolondresak.
Arkeolan Fundazioa.
ARMA PLAZA Fundazioa.
ATARI Kultura Arkitektonikoa.
Cavallé Coll organoaren lagunak.
EHU. Gipuzkoako Campuseko Biblioteka.
ERESBIL-Musikaren Euskal Artxiboa.
Ezkil-jole taldea.
GENVitrum, las gentes del vidrio

Gipuzkoako Artxibo Orokorra
Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoa
Gipuzkoako Dantzagunea.
Hernaniko Soinua.
LENBUR Fundazioa.
Manuel Larramendi Kultur Bazkuneko
bazkideak.
Oinatur Koop. Elk. Txikia.
Soinuenea Fundazioa.

Albaola Itsas Kultur Faktoria.
Armagintzaren Museoa.
D´elikatuz Zentroa.
Donostiako Aquarium-a.
Igartubeiti Baserri Museoa.
Igartza Monumentu Multzoa.
Laboratorium Museoa.
Oiaso Erromatar Museoa.
Sagardoaren Lurralde.
San Telmo Museoa.
TOPIC, Tolosa International Puppet
Center.
Untzi Museoa-Museo Naval
Zeraingo Paisaia Kulturala.
Zumalakarregi Museoa.